
Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com


Juana Maiztegi Elkoroberezibar

Bergara, Gipuzkoa
(1913-2008)



Aurkibidea

Biografia



1913an jaio zen "Gasparreneko" etxean. Gurasoak Bergarakoak zituen, baina ama gazterik joan zen Bilbora josten ikastera. Juana joskintzako irakaslea izan zen, eta eskolak eman zituen hainbat urtetan. Bergaran oso emakume ezaguna zen. Lehenagoko kontu ugari aipatu zizkigun.

Zintak

BER-212

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-10-29
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Etxeberria, Eider

BER-213

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-10-29
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV

Pasarteak

1. Aurkezpena eta txikitako jostailuak

- **Erref**: BER-212/001
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
1913an jaio zen Bergaran. Oso desberdina zen orduan Bergara, txikiagoa. Non eta zerekin jolasten zuten azaltzen du.

2. Txikitako jolasak (I): neskak diaboloan eta mutilak pote-poteka

- **Erref**: BER-212/002
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:01:43. **Bukatu**: 00:02:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Beste jolas batzuk: sokasaltoka, diaboloa... Diaboloan nola jolasten den azaltzen du. Mutilak pote-poteka ibiltzen ziren.

3. Txikitako jolasak (II): denak batera bale-baleka

- **Erref**: BER-212/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:02:51. **Bukatu**: 00:04:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Denak batera bale-baleka ibiltzen ziren. Nola jolasten zuten azaltzen du.

4. Txikitako jolasak (III): "puntilikabo"

- **Erref**: BER-212/004
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:04:11. **Bukatu**: 00:05:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Puntilikabora nola jolasten zuten azaltzen du.

Transkripzioa
- Eta gero, tortolosak edo?
- Baitta, ta puntilikabo, zerakin be bai, orratzakin.
- Eta zer da, zelan da puntilikabo?
- Puntilikabo izeten zien, orratza bakizu ezta?
- Josteko orratzak?
- Dauka puntia alde batetik, ta bestetik burua.
- Bai.
- Ta puntilikabo izaten zan kabo burua, ta punti, ba, pikatzen dabena. Esate bateako, puntili, puntilikabo, ta jartzen giñan eskillara batzutan edo, eta harexekin jokatu eitten giñuan.
- Eta zelan izaten zan ba jokua? Ze, zelan zan jolas hori?
- E?
- Ze eitten zenduen orratzekin baiña?
- Orratzekin, ba, zeukan papelakin einddako halako zer batzuk, eta hantxe sartuta eukitzen giñuzen, eta gero etara bat, ifini hola, ta puntilikabo, ta azertatzen bazeban, ba emon ein bihar, zera, orratza azertatzen ebanai emon bihar jakon.
- Osea ke berak asmatu bihar zeban ea burua edo puntia zekazun zuk.

5. Txikitako jolasak (IV): tortolosak

- **Erref**: BER-212/005
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:05:19. **Bukatu**: 00:07:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Tortoloska. Non eta nola jolasten zuten azaltzen du.

6. Errekako jolasak

- **Erref**: BER-212/007
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:08:14. **Bukatu**: 00:09:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Errekan ere jolasten zuten. Fabrikak errekara tintea botatzean, arrainak azaltzen ziren, eta tripetan zeukaten puxikekin jolasten zuten. Mutilak bakarrik ibiltzen ziren igerian. Batzuk "Puente Colgante"tik erori eta busti egiten ziren.

7. Debako hondartza (I): arropak

- **Erref**: BER-212/008
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:09:46. **Bukatu**: 00:10:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Bainujantzia bazeukaten Debara joateko. Bainujantziak nolakoak ziren deskribatzen du. Debara noizean behin joaten ziren. Bainatu eta nola lehortzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa
- Orduan eta, baiñadorrik eta ez zan egongo ezta?
- Ke ba. Baiñadoria Debara juaten giñanian ta eukitzen giñuan e? Guk bazauzkagun. Holaxe, honaiñokotxe zerekin, prakekin.
- Belaunetaraiñoko prakak?
- Bai, bai.
- Eta Debara orduan juaten ziñazien?
- Ba, asko ez, baiña, juaten giñan.
- Gurasuekin ero eskolakin?
- Bai, gurasuekin. Eta gero han egoten zien baiñadoriak, gizakumiak izaten zien, eta gu uretan sartzen giñan, ta handik erteten genduanian, albornozak ematen zoskun, ta jantzi haura.
- Alkilerrian edo?
- E?
- Alkilerrian edo?
- Bai, alkilerrian.
- Eta baiñadorrak be han eukitzen zittuen…
- E?
- Baiñadorrak behe han eukitzen zittuen alkilatzeko?
- Ez, ez, baiño, esto…
- Baiñadora norberak eruan bihar?
- Bai.
- Albornoza?
- Ta albornoza ez naiz akordatzen. Eurak emongo zoskuen.

8. Debako hondartza (II): olatuak eta jendea

- **Erref**: BER-212/009
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:10:49. **Bukatu**: 00:11:58

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Mutilek bazekiten igerian, baina neska gutxik. Debako hondartzan soka bat zegoen, eta olatuak zeudenean, hari heltzen zioten. Hondartzan jende dezente egoten zen.

9. Errotaerdi erreka

- **Erref**: BER-212/010
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:11:58. **Bukatu**: 00:13:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Errotaerdin karramarroak hartzen zituzten, eta baserrira eramatean nola prestatzen zituzten jateko azaltzen du. Errekako errotan nola jolasten zuten aipatzen du.

10. Amaren gaztetako bizitza

- **Erref**: BER-212/011
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:13:44. **Bukatu**: 00:14:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Gurasoak nongoak ziren azaltzen du. Ama ez zen maiorazgoa, eta Bilbora joan zen umezaintzaile. Egunero joaten zen trena ikustera.

11. Amaren hagin ustelen istorioa

- **Erref**: BER-212/013
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:15:39. **Bukatu**: 00:17:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:
Amak hagin ustelak zituen, eta medikuak behitik zuzenean hartu zuen txertoa

amari emateko. Hagin ustelak ezer eman gabe kendu zizkioten; Bergaran, ordea, dentistak indizioarekin atera zion hagina.

Transkripzioa
- Gero juan zan, esto, hagin ustelekin, eta bakunatzeke. Eta eukitzen zaban jakekia. Eta gero, “era una casa que iba el médico todos los días”.
- Hori umetan ez?
- E?
- Umetan esaten dozu. Ya Bilbora juan zanian, halan juan zan.
- A bai, zerera hamabost urtekin juan zan, e?
- Bueno, bai, oseake gaztetan.
- Ta gero, ba medikua bialtzen zotsen kuartora, ta medikuak esaten zeban “es que a usted no le debían de haber recibido en esta casa”. Eta gero esaten zaban, han beste batekin eruaten ei zeben, dana lanparuz beteta ganaua, lotuta ezta? Eta zerian besuan etara ganauai hartu bakun zera, “la vacuna”, ta zuzen-zuzen besuan sartu.
- Zure amari hori?
- Geure amai in zotsen hori. Eta gero hagin ustelak be “a lo vivo, e? No había esto”. Ta gero Bergara etorri zanian ezkonduta Bergara etorri zanian, zeuan dentista bat Peña izena zeukana, ta harek atera zotsan, dana, “pero con inyección”. Ta “aiii, hau txokolatia hartzia baiño hobia da” esaten zeban harek.

12. Gurasoak ezagutu zirenetik ezkondu arteko garaia

- **Erref**: BER-212/014
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:17:09. **Bukatu**: 00:18:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Lanbideak » Arotzak
- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Amak Bilbon urte bat, urte t'erdi eman zuen. Aita Bilbora igeltsero ikastera joan zen. Elkarrekin hasitakoan, ama konfesatzera joandakoan, abadeak esandakoa kontatzen du. Gurasoak ezkondu egin ziren, eta Zubietan jarri ziren bizitzen. Ama jostun-lanetan, eta aita igeltsero.

13. Bilboko etxe dotoreko pasadizoak

- **Erref**: BER-212/015
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:18:36. **Bukatu**: 00:19:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Amak Bilbon lan egin zuen etxe dotore batean, eta han izandako pasadizoak kontatzen ditu. Asko ikasi omen zuen amak han.

14. Gurasoen lanbidea

- **Erref**: BER-212/016
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:19:52. **Bukatu**: 00:20:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Aitak Bilbon ikasi zuen ofizioa, apopilo ibili zen anaiarekin batera. Gero kontratista izan ziren biak. Ama jostuna izan zen, oso langilea.

15. Haurren jaiotzak

- **Erref**: BER-212/017
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:20:58. **Bukatu**: 00:22:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Amak haurrak edukitzeko, sahatsarekin lan egiten zuen emakume batek laguntzen zion. Etxean jaiotzen ziren, eta jaioberritan amarekin egoten ziren. Erditu ondoren, ama horren gaizki zegoen, izan zuen 2. haurra nahi gabe ito egin zuen.

16. Ama jostun-lanetan

- **Erref**: BER-212/018
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:22:28. **Bukatu**: 00:24:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Amari josten nork irakatsi zion azaltzen du. Bazuen josteko makina. Telak nondik erosten zituen azaltzen du. Baserri batzuetan baziren jostunak.

17. Mojen eskola eta bertako zigorrak

- **Erref**: BER-212/020
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:24:58. **Bukatu**: 00:26:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Mojetara joan zen eskolara. "Externa" zen eskolan, eta ez zuen ordaindu beharrik. Aulkia buruan jartzea zen zigorra. Zergatik zigortzen zituen aipatzen du.

18. Monjen eskolako neska "internak"

- **Erref**: BER-212/021
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:26:43. **Bukatu**: 00:27:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Juanaren eskolak izen handia zuen, eta kanpotik neskak etortzen ziren "interna". Neska horien bizimodua nolakoa izango zen kontatzen du, eta nongoak ziren aipatzen du.

19. "Externa" izatetik, "a media pensión" izatera

- **Erref**: BER-212/022
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:27:40. **Bukatu**: 00:28:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
"Externa" egon zen komuniora arte. Eta horren ondoren, "a media pensión" sartu zen. Alde handia zegoen bat edo beste izan: tratu hobea ematen zuten.

20. Euskara eskolan

- **Erref**: BER-212/024
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:30:10. **Bukatu**: 00:32:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Dena erdaraz ikasten zuten. Eta beraien artean ere erdaraz egiteko ohitura sartu zien. Zigorrik ez zegoen euskaraz hitz egiteagatik. Bai, ordea, bere amaren garaian.

Transkripzioa
- Eta zelan izaten zan, euskeraz edo erderaz?
- Erderaz ein bihar zan han. Han euskeria askok nik uste dot ahaztu ein zebala.
- Bai e?

- Han dana erderaz.
- Eta zeuen artian gero...
- Aurrenetik uste dot euskerazko dotriñia emoten zebela, e?
- Ta zeuen sasoirako ya?
- Guk... nik, nere gogun erderaz.
- Dotriñia be erderaz. Ta gero zeuen artian, ba, jolasorduan edo, euskeraz eitten zenduen edo...?
- Bai, eingo giñuan. Baiña gehixao erderaz, e? Ya sartu zoskun hauraxe belarrittik eta...
- Ta zigorrik edo eukitzen zenduen, kastigorik edo euskeraz eittiarren edo...
- Ez, ez, ez.
- Ez? Halakorik ez?
- Gure aman denboran ta bai.
- A bai?
- Gure amak esaten zeban, esto, gaztia, zeaittikan bederatzi urtekin bialdu zeban amandriak Bilbora, eta aurretik ibiliko zan. Eta zeukan, esto, erdaldun maistrua. Eta euskeraz eitten bazeben, ei zeukan anillo bat. Eta anillo haura, zeiñek, zein geratzen zan anilluakin, eskuak ipini hola, eta...
- Zigorra atzaparretan...
- Bai.
- Eta hori amak ezautu zeban?
- Bai, bai, amak. Ta harek ez zekixen ezebe. Amandriak eta zela eingo zeben ba erderaz, harek ezebe ez zekixen. Ta disparatiek esango zittuen, baiña... Pentsaizu noiztik datorren gorrotua e? Gure amak eukiko zittuan oin “ciento y pico de años”. Neuk dauzkat “noventaitrés”, konke...
- Bai, bai, aspaldiko kontuak. Jesus.

21. Komunioko kontuak

- **Erref**: BER-212/025
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:32:03. **Bukatu**: 00:34:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Dotrina ikastea oso garrantzitsua zen. Bi komunio egiten zituzten, eta nolakoak ziren azaltzen du. Komunioko soinekoak deskribatzen ditu.

22. "Escuela del Hogar"

- **Erref**: BER-212/027
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:35:09. **Bukatu**: 00:36:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
"Escuela del Hogar" ireki zuten gero. Hara nor joaten ziren azaltzen du. Bere lagun baten bizitza kontatzen du (Eustakio Agirreolearen alaba).

23. Konbidautzak etxean zirenean jaten zutena

- **Erref**: BER-212/028
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:36:43. **Bukatu**: 00:38:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Eskolan ikasitakoa amari kontatzen zion. Amak plater haiek ikasi, eta familia osoa Santa Maiña egunean elkartzean prestatzen zituen. Jaten zutena kontatzen du.

24. Konbidautzak Muiñondo baserrian

- **Erref**: BER-212/029
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:38:19. **Bukatu**: 00:39:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
San Blas egunean Muiñondo baserrira joaten ziren. Eta etxerako buelta nola egiten zuten azaltzen du. Familia osoa elkartzen zen. San Lorenzo egunean ere beste leku batean elkartzen ziren.

25. Sukaldean eta josten non ikasi zuen

- **Erref**: BER-212/030
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:39:20. **Bukatu**: 00:40:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
"Escuela del Hogarren" sukaldean ibiltzen ikasi zuen. Eta Piarenean, sukaldean eta josten ikasi zuen. Arratsalde eta gaueko txandak zeuden. Neska asko ibiltzen ziren "Escuela del Hogarren".

26. "Escuela del Hogarren" helburua

- **Erref**: BER-212/032
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:41:16. **Bukatu**: 00:42:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
"Escuela del Hogarrera" zein joaten zen aipatzen du. Ikasturte bat egin zuen han. Eskola haren helburua zen emakumeak etxekoandre onak izateko prestatzea. Mutilik ez zen joaten hara ikastera.

27. "Escuela del Hogarreko" ikaskideak eta giroa

- **Erref**: BER-212/033
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:42:18. **Bukatu**: 00:43:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
"Escuela del Hogarreko" anekdotak kontatzen ditu, eta norekin batera ikasi zuen aipatzen du. Gustura ibiltzen ziren berriketan, josten aritzen ziren bitartean.

28. Aisialdia

- **Erref**: BER-212/034
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:43:53. **Bukatu**: 00:45:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Paseatu egiten zuten, igandetan bandaren musika entzuten eta dantzatzen zuten. Desiatzen egoten ziren dantzatzeko.

29. Dantzatik etxera joateko ordua

- **Erref**: BER-212/035
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:45:08. **Bukatu**: 00:46:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Etxera joateko ordua zeukaten. Ordua errespetatu ez zuen lagun bati gertatutakoa kontatzen du.

30. Nola egiten zuten dantza

- **Erref**: BER-212/036
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:46:13. **Bukatu**: 00:47:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Mutilekin dantzatzen zuten. Mutilek eskatzen zien neskei dantzatzeko. Nesken artean ere dantzatzen zuten

31. Musika egunetako ohiturak

- **Erref**: BER-212/037
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:47:12. **Bukatu**: 00:48:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Zer dantza mota dantzatzen zuten aipatzen du. Danbolina ere jotzen zuten. Plazan neguan dantzatzen zuten. Dotore janzten ziren egun horietarako. Pieza artean, paseatu egiten zuten.

32. Orduko moda

- **Erref**: BER-212/038
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:48:51. **Bukatu**: 00:50:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Modaren arabera aldatu egiten zen arropa-estiloa. Orduko orrazkerak ere deskribatzen ditu.

33. Eustakio Agirreolearekin izandako harremana

- **Erref**: BER-212/039
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:50:10. **Bukatu**: 00:51:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:
Argazkiak ateratzera Eustakio Agirreolearen dendara joaten ziren. Eustakio ezagutu zuen, eta hark egindako "Kristo" bat aipatzen du. Eustakiok lan hori

egin bitartean, haren alaba eta Juana josten egoten ziren tailerrean harekin batera.

34. Eustakio Agirreolea atxilotu zutenekoa

- **Erref**: BER-212/041
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:53:16. **Bukatu**: 00:54:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Eustakio gerratean atxilotu zuten. Eta harekin batera beste gizon batzuk ere. Heriotza-zigorra jarri zieten. Pixkanaka, hala ere, aske utzi zituzten.

35. Herriko festa batzuk

- **Erref**: BER-212/044
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:56:49. **Bukatu**: 00:58:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Gaztetako festak eta egun horietako giroa: Pazkoak, Santa Marina eta San Pedro.

36. San Martzialak

- **Erref**: BER-212/045
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:58:39. **Bukatu**: 00:59:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
San Martzialak: "Txantxiku" gizona aipatzen du, meza, txokolatea, bazkalostean aurreskua eta dantza.

37. San Martzial eguneko festa

- **Erref**: BER-212/046
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:59:48. **Bukatu**: 01:01:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Dantzari buruz hitz egiten du. Oraingoa baino giro sanoagoa zegoela dio, eta goizago bukatzen zela festa. San Martzial egunean ematen zien izozkiaz hitz egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com